



UDALBILTZA®: ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK

2006

POZA, ITXAROPENA ETA KONPROMEZUA

2.006ko martxoaren 22an

Gaurko egunean 2.006ko martxoaren 24tik aurrerako ETA erakundeak ekintza armatuen etenaldi iraunkorra iragarri duelarik, UDALBILTZAk, Euskal Herriko Udal Hautetsien biltzarrak ADIERAZTEN DU:

- **bere poza**, ETAre indarkeria eta harenganako jarrera izan bait dira Euskal Herriko udal hautetsien elkarren arteko lanerako oztopo gairi ezin nagusiak; eta nazio eraikuntzan guztion ahaleginak beharrezkoak izango dira.
- **bere itxaropena**: indarkeriarik gabe, etorkizuna geure borondate librean erabakitakoan oinarritzeko.
- **bere konpromezua**: Udal Hautetsi talde honek lurraldez lurralde eta herriz herri bere borondate eta bihotz oneko lana jarriko duelako bake egoera manten dadin, etorkizunean indarkeria eta bere ondorio guztiak iraganeko amets gaiztoa baino ez dadin izan.

Euskal Herrian, 2.006ko martxoaren 22an